

Jira

Uxue Apaolaza



Txikian

Madril handia da; hemeni ez naiz ez naiz ezer, oinezko bat gehiago, hiria elikatzen duten etorkinetarik bat. Hemen talderik topatu ez dudalako da hori. Hurbilduko naiz Euskal Herrira Aste Santuan, eta lehen egunetik bihurtuko naiz idazle. Ez zait beti gertatzen, baina oraingoan izango ditut beste idazleren batzuekin pare bat bilkura, eta bilera horietan gara idazle idazleok, nonbait izatekotan. Idazleak idazleen artean ibiltzen saiatzen

dira, edo beren irakurle artean, edo irakurri gabe, beren argazkia aldiakari edo egunkariaren batean ikusi dutenen artean. Gainerakoan defentsa gabe geratzen dira, ez dago idazle zarelafrogatzeko modurik; niri, behintzat, ez zaizkit sonetoak bat batean atzeratzen nire trebezia frogatzeko. Hobe da, inork ezagutzen ez bazaitu, idazlea zarelaz esatea; algara atzeratzen zaiogendeari bat-batean.

Euskal Herriko zenbait bileratan bakarrik naiz idazle, nire etxe barruan gertatzen dena niretzat baizik existitzen ez denez, eta txiki horretan naiz handi; txikitasunak ematen dio beharbada gizakiari handitasuna, beharbada horregatik idazle, yogazale, homosexual, euskaldun, bakoitzak identitate bat aukeratu du noizean behinera, mundu handi honetan (jurralde eta aro historikoz gainezka) galdurik, noizean behin, ekipo txiki bat nahi/behar dugu; gu handiagotzeko bakarrik.

Bira

Arnaegoia Iban



Erromesaldia

Duela zortzi urteko irailean abiatu zen. 83.000 kilometro egin ditu oinez ordutik, eta 30 oinetako pare urratu. Dioenez, Australia eta Japonia dira ibildaldi horretan zaldupatu dituen herrialde bakarrak. «Berriz oinez ibiltzen hasten banintzen, munduko bide guztietan barrena ibiltzeko promesa egin nuen», irakurri nion Jose Antonio Calvo Garcia erromesari hilaren hasieran. Marinela zen, eta Karmengo amabirjinari egin zion

promesa, bi lankideren hilotzen gainean naufragu, ur izoztutan bederatzitako ordu egin ostean hankak moztu beharko zizkiotela entzundakoa. Ez zizkioten moztu, bada, zangoak, eta Zarautzen zen hilaren hasieran, erromesaldia bukatuzear

Lehenik Santiago eta segidan Fatima, horietatik dituzten azken bi geltokiak. Cadizera itzuliko da ondoren, liburua idazteko asmorekin, hamaika pasadizo eta irakaspen bilduta. Nagusietako bat, Euskal Herrian ez dutela nahi erromesik, erromesek dakarten dirua baizik. Eta bestea, adierazgarria oso: erromesaren etsai nagusienetako bat direla apaizak, berari ez diotelako «sekular» ostaturik eman.

Antonio Maria Rouco Varela Espainiako Gotzainen Batzarreko lehendakari izendatu zutenetik, sarritan egin dit pentsamenduak erromesaldia Jose Antonio Calvo Garcia-ri hitzartuta.

Telletxea Idigoras joan zaigu

Joseba Intxausti

Historialaria

Jose Ignazio Telletxea Idigoras (J. I. Tellechea Idigoras) hil da, Euskal Herriak garai guztietan izan dituen hiruzpalau historialari oparoenetako bat. Galera handia, inondik ere, baina irabazi paregabea bere bizialditi utzi digun uzta.

Hitz gutxitan laburtzeko: donostiarra, apaiza, historialaria, gipuzkoarra eta unibertsala izan da Jose Ignazio, gure artean maitatu eta ezagutua, eta mundu zabalean historiako zenbait alorretan aipatu ezin saihestua.

Leialtasunen geografia. Donostiako Gipuzkoa plazan jaio zen Telletxea (1928), eta sorterrri honek aparteko pisua izan du beraren ikerkuntza eta sustapen lanetan. Ikuspuntu horretatik esan daiteke Telletxearen bizitzak bere geografia intelektuala izan duela: Nafarroako Ituren, Donostia historia, Erromako Artxioboko eta Salamancako eliz Unibertsitateak.

Maitea, hagit maitea izan du Ituren, aita bertakoa baitzuen, eta han zeukan bere liburutegi maitatua. Munduan zehar eta hamarkadatan bildutako histori albisteak Iturenen izan dute sarritan paperera pasatzeko parada. Berak idatzitako San Ignazioaren biografiak sortu zidan harridura adieraztean hau esan zidan: «Lo escribi en dos meses, en Ituren». Maite zituen hango bake eta erosotasuna.

Eta tokien ondoan erakunde bat: Eliza katolikoaren eta beronen erreforma-zaleen historialaria izan

da, hemen eta erbeste anitzetan. Salamancan bizitza osoko Irakaslea gertatu da, eta Donostian ez zenean hiri hartan bilatu behar zenuen, edo Erroman. Ikertu, ikasi, irakatsi eta argitara eman: guztiak etenik gabeko segida-katea izan du beti.

Ibilera luzeko zereginak hartu ditu bere gain, hemen bezala atzerrian. Donostia eta Salamanca dira batik bat iraupen horren lekuko. Gai eta alor ezberdinak ukitu ditu, baina leialtasun ardatz nagusiak ez ditu galdtu sekula: Gipuzkoa, XVI. mendea, Eliza, euskaldunen erbesteak, etab.

Dozenaka liburua eta ehunka artikulua (1949...) dira Telletxea Idigoras-en lumatik aterratutakoak, eta jada egindako bibliografian ikus daitezke (1983).

Elkarlana gidatzen. Idazle lanaren ondoan Telletxeak sustapen egitekoak hartu ditu bere ardurapean. 1966an, arautegi eta guzti, Grupo Dr. Camino sortu zenetik, berri gidatzen eman du indarrak franko, taldeko elkartasuna eta argitalpen segida segurtatzen. Orain Dr. Camino Institutua da elkarre hori. Eta bide luzeko ahalegin horren emaitzak hor daude, Gipuzkoa/Donostia Kutzak babesturik kaleratu direnak.

1967an jaiotako buletina da lehenengo aipatzekoa (*Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, BEHSS); bizirik eta osasun onean dago oraindik, berrogei urteko ibilerak burutu ondoren. Tokiko historiako hori bildu den obrak pareko beste antzekorik inon gutxitan du. Gaiak azaltzen ez ezik, ikertzaileak sortzen lagundu du, unibertsitate-rik gabe gengiltzanetik hasita.

Ez dira ahaztekoak, gainera, institutu beretik Telletxeak zuzendu dituen bi liburu bildumak: *Donostiako Gaiak* eta *Monografiak*. Bien katalogoak ehunen bat titulatar iristenari dira. Batean nahiz bestean hainbat gai interesgarri bildu da: besteak beste eta lehenengo, Hiriaren historia: udalerriko lurraldea, udalaren kudeakuntza, udal-bizitza ekonomikoa, gaztelu-harresiak, 1813ko sutea, hirigintza, XIX. mendea, historia ekonomikoa, herri-arkitektura, Alde Zaharra, Ajete, Sta Klara.

Baina ugariari izan dira bestelakoak ere: pertsonaia (K. Erauso, A. Okendo, santiagistak, S. Mujika, K. Etxegarai, Bilintx, Regoyos, Aita Donostia, Grandmontagne, Unamuno, Olaizola, Artetxe, Martin Santos), parrokiak eta komentuen historiak (Sta Maria, Altxa, Loiola, Artzain Ona; San Telmo, frantziskotarrak, karmeldarrak, kaputxinoak), une larriak (Gipuzkoa 1521eko Komunitateen gerratea, 1719ko setioa, 1827ko errebolta, gerra karlistak), probintziako herrien albisteak (hiribilduen sortzea, kostaldeko hiribilduak, 1597ko izurritea, Donostia aldeko geografia sozial hiritarra, Pasaiaiko auzia (1623-27), Hernaniko (Itsas Armada Garaitezina, kortsarioak, Cadiz, Amerika, Caracasko Erret Konpainia, etab.). Horrekin esanda dago, beraz, iker-ahalegin horrek hartu duen tamaina.

XVI. mende maitea. Nazioarteko mundu akademikoan, unibertsitate, institutu eta zientzi elkarrekin, Telletxea Idigoras-en aipua ezinbestekoa da Mendebaldeko eta Espainiako XVI. mendea ezagutzeko. Hau da, segur aski, atzerrian Telletxearen al-

derik ezagunena, hor egin baititu ekarpen berritzaileenak.

Mende hura hiru gertakari handi definitu zuten: Pizkundeak, erreforma erlijiosoen eta mundu berriaren aurkikundeak. Guztietaz arduratu da Telletxea, baina batez ere erreforma erlijiosoen proposamenei eta horretan izandako une gatazkatsueni eskaini dizkie bere orduak, katolikoak eta protestanteak denak aintzakotzat hartuz.

Erreforma hori Donostian, Espainian eta Europan aztertu du, ideien eta erakundeen historia eskainiz, Trento inguruko gertaerak azalduz. Gaur egun ere interesik handiena dute jakin batzuk (1558-1560etako politik-ideologikoa, adibidez) arretaz begiratu eta deskribatu dizkigu, eta euskaldun handien historiak ere aukeratu dituz mende haren aurpegia emateko, Karrantza eta Ignazio Loloilakoa.

XVI. mendez ari den bibliografia onenaren parean geratuko dira, luzaro gainera, Bartolome Karrantza mirandarrari buruz argitara eman dituen lanak (edizioak eta analisiak). Historialariek ikerlan horiei buruz eman dituzten kritika oharrek ongi finkatu utzi dute Telletxearen itzal akademikoa. Karrantza nafarra dugu kontrarreforma elkor eta itsutua noraino hel zitekeen erakusten duen kasu bat (1558-1576).

San Ignazio eta Lagundiaren historia bertatik bertara aztertu ditu Telletxeak, eta esan behar dut, biografien irakur zale naizelarik, Telletxearen *Ignacio de Loyola, solo y a pie* (2000) izan dela nik sekula irakurri dudana biografirik erakargarri eta aberatsena: esan bezala, bi hilabetean idatzitako berrogei urteko lana delako, noski.

Euskal Herriaren oroimenean.

Euskal Herriaren historialaria ere izan da Telletxea. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eman du bere lan maitateko hainbat, eta Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona Saria eman zion 2002an. Erbesteetan hainbat elkarre eta unibertsitatean oharatua izan den honek (Oxford horietako bat) sorterrian ere oso aintzakotzat hartua ikusi du bere lana. Begira, bestela, 1983an argitara eman zitzaion omeneko liburua.

Euskal sozio-biografiak inoiz ahaiztu gabeko lekua izan du Telletxearen argitalpenetan; saiatu da baliozko izen galduak biltzen eta ezagunak genituenen bizitzak argitzen, eta ez Euskal Herriaren bakarrik baita urruneko erbesteetan ere, hala nola Amerikan edo Japonian.

Burututako euskal lanetan entresaka eginez, Aita Larramendiri buruzkoak azpimarratuko ditut. Bi alde izan ditu ekarpen horrek: alde batetik, Larramendiren obra argitaragabea eman digu, ia dozena erdi bat liburutuan (1969...), eta han eta hemen jesulagun idazlearen giza soslaia eta emari politikoa aurkeztu eta aztertu dizkigu (1992).

Gure gaurko euskalgintzaren egoerak uste daitekeen baino zeri-kuisi handiagoa du XVIII. mendeko harekin, eta horregatik ere Larramendia Adiskideen inguruko Telletxearen ikerlanek urrezko balioa dute hizkuntzaren hau aurrera aterahi nahi dugunontzat. Horrek eman dezakeen denbora-sakotasunaren premia dugu gure egunotan.

Goian begi maisu miretsi eta inoiz lankide ere izan dudana Jose Ignazio Telletxea Idigoras euskal historialaria; hala nahiko nuke iragana ere irabazi digun adiskidearentzat.

berria

Zuzendaria: Martxel Otamendi
Zuzendariordea: Xabier Makazaga
Edizio arduraduna: Lurdes Huizi

Argitaratzailea: Euskal Editorea, SL
Publizitatea: Iragarri, SL
Lege gordailua: SS-0662/03
Batzorde parekidea: 0712/18.059
Egokitz nagusia: Martin Ugaldes Kultur Parkea.
Cudarian Etorbidea 7/g. 20140 Andoain.

Telefonoa: (0034) 943-304030
Faxa: (0034) 943-300943
Webgunea: www.berria.info
Posta elektronikoa: berria@berria.info
Publizitatea: publi@iragarri.net
Harpidetza saila: (0034) 943-304345

Date: 09/03/2008. Exempleire: 1,466
Editeur: Euskal Editorea S.L.
Directeur de publication: Martxel Otamendi
Commission paritaire: 0712/18.059
Delegation Labour: Lisses 3, 64.100-Baiona.
Tel.: (0033) 55925620. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK. Araba: Bizenta Mogel 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-150452. Erredakzio faxa: 945-148307. Posta elektronikoa: araba@berria.info. Bizkaia: Unibertsitate Kalea 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-4352600. Erredakzio faxa: 94-4234975. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info. Nafarroa: Irabeko Monasterioa 45, 13. Posta kodea: 31011. Iruleta. Telefonoa: 948-366622. Publizitatea: 948-366623. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info. Lapurdi: Lisses 3, Posta kodea: 64.100 Baiona. Telefonoa: 55925620. Faxa: 559254303. Posta elektronikoa: lapurdi@berria.info